

2018an Arabako elkarte eta erakundeek garatu beharreko jardueretarako eta proiektuetarako Fundación Vital Fundazioaren bigarren laguntza-deialdia

Bere patronatuak garatutako Plan Estrategikotik eratorri den laguntza-deialdi hau argitara eman dio Vital Fundazioak gizarte arabarrari, arabar guztien bizi-kalitatea hobetzera bideratutako proiektuei laguntza eman eta proiektuok sustatzeko helburuz. Era berean, gardentasuna, parte hartzea berdintasun baldintzetan, eta Arabako gizarte ehuneko erakunde guztien arteko lehia askea sustatzeko konpromiso sendoa dugu.

Vital Fundazioak, bere helburu eta balioekin koherentzian, ikuspegi solidariotik eta gaur egungotik garatzen du bere gizarte ekintza, bertako biztanleen gizarte, ekonomia eta kultura garapena bultzatuz.

2018an, hiru laguntza-deialdi egingo ditu Vital Fundazioak eta honako data hauetan izango dira: lehenengo deialdia otsailaren 1etik 19ra izan zen. Bigarren bat, maiatzaren 2tik 21era eta hirugarrena, irailaren 17tik urriaren 8ra.

Lehenengo deialdi bietan aurkeztu beharreko proiektuak 2018an burutu beharko dira. Hirugarren deialdira aurkezten direnak 2019ko lehen seihilekoan ere burutu daitezke.

Arabako elkarte eta erakundeek aurten egingo diren hiru deialdietatik bitara aurkez daitezke, eta deialdi bakoitzera proiektu bakarra aurkez dezakete

BIGARRIN DEIALDIAREN OINARRIAK

1 Helburua: 2018rako bigarren deialdi honek, laguntzak ematea du helburu, norgehiagoka erregimenean, euren jarduera Fundación Vital Fundazioaren jardun-eremuetan garatzen duten elkarte eta erakunde arabarren proiektuei eta jardueri, eta lehentasunez, honako hauei:

- Gizarte arloa: mendekotasun eta desgaitasun arloetan ahulenei eta behartsuenei, baita euren zaintzaileei eta senitartekoei, laguntza eman eta aukerak eskaintzen dizkieten proiektuak eta jarduerak. Gizarteratzea eta pertsona guztien berdintasuna lortzera bideratutako proiektuak.
- Arabaren lurralde-garapena: Arabako Koadrilen sustapen ekonomikoa eta soziala bultzatzen duten proiektuak eta ekimenak.
- Hezkuntza, prestakuntza eta enplegua: haur, gazte eta nagu-

sien prestakuntza integrala osatuko duten gaitasunen, jarreraren eta balioen garapenerako hezkuntza jarduerak eta programak.

Lan-merkatuan sartzera bideratutako ekintzak, prestakuntza profesionala, lan-praktikak, prestakuntza-bekak, autoenplegu eta ekintzailtza proiektuen bidez.

- Ondarea eta Ingurumena. ondare historiko kulturala eta ingurumen ondarea sustatzeko eta mantentzeko jarduerak eta programak.
- Ikerketa, berrikuntza eta garapen teknologikoa: ikerketa zientifiko eta tekniko programak, garapena eta berrikuntza, hainbat sektoretan, hezkuntza, industria, kultura, gizarte, eta abar. .
- Kultura: oro har kultura, eta zehatzago hartuta, bertako kultura, aisialdia, parte hartzea eta balio komunitarioak sustatzera, sortzaile berriei eta berrikuntzari, arteari eta abarri laguntza ematera bideratutako proiektu eta jardura soziokulturalak.
- Kirola: oinarrizko kirola eta bere balioak, emakumezkoen kirola, inklusio-kirola eta herri kirola sustatzen duten proiektuak.

2. Elkarte eta erakunde eskatzaileek bete beharreko baldintzak:

- Legez erata egon behar dute eta dagokien erregistroan inskribatuta, gutxienez urtebeteko antzinasunaz.
- Irabazi asmorik gabeko erakunde izenpean erata egon behar dute, gizarte intereseko helburuak izan behar dituzte eta euren jarduna Arabako lurralde historikoan burutu behar dute.
- Zerga eta lan betebeharretan egunean izan behar dute, eta urteko kontuak eta jardura memoria aurkeztu behar dituzte.
- Aurkeztu duten proiektua kudeatzeko egitura eta ahalmen nahikoa izan behar dute.
- Banku kontua izan behar dute indarrean Kutxabanken.

3. Proiektuak: elkarte edo erakunde bakoitzak proiektu bakarra aurkez dezake. Proiektu bakoitzak dagozkion definizioak eta gastu nahiz sarreraren aurrekontuak ekarriko ditu.

Aurkeztutako proposamenean, honako hauek balioetsiko dira modu positiboan proiektuetan:

- Fundación Vital Fundazioaren Eginkizuna eta Ikuspegiarekin nahiz Plan Estrategikoarekin lerrokatutakoak izan daitezela,
- Fundazioaren lehentasunezko jardura arloetan taldekatzen diren proiektuak izan daitezela,
- Ez daitezela ez zuzeneko ez zeharkako babesletza izan,
- Ez dadila egiturari dagozkion ohiko gastuen finantzaketa izan,
- Beste erakunde batzuen laguntza izan dezatela,
- Euskararen erabilera, genero berdintasuna, desberdinen gizartratzea, boluntarioen lana susta dezatela,

- Praktika berritzaileak, kohesioak eta gizarte eraldaketarakoak garatu ditzatela,
- Bideragarritasun soziala eta ekonomikoa izan ditzatela, eraginkortasun irizpidekoak izanda, garatu nahi diren jardueren jasagarritasuna bermatzeko gai izan daitezela.

4. Vital Fundazioaren ekarpen ekonomikoa: laguntzak ahalik eta proiektu kopuru handienari emateko, eta orientatzeko erreferentzia gisa, deialdi honen bitartez emango diren kopuruak honako hauek izango dira:

- 50.000 €-tik gorako exekuzio-aurrekontua edo guztizko zenbatekoa duten proiektuak: Fundación Vital Fundazioak emango duen laguntza, gehienez ere, aurrekontuaren %40 izango da.
- 20.000 €-tik gorako eta 50.000 €-tik beherako exekuzio-aurrekontua edo guztizko zenbatekoa duten proiektuak: Fundación Vital Fundazioak emango duen laguntza, gehienez ere, aurrekontuaren %50 izango da.
- 20.000 €-tik beherako exekuzio-aurrekontua edo guztizko zenbatekoa duten proiektuak: Fundación Vital Fundazioak emango duen laguntza, gehienez ere, aurrekontuaren %90 izango da.

Orotara finantzatu beharreko zenbatekoak, hala Fundación Vital Fundazioak emandako laguntzetatik nola proiektuak jasotzen dituen beste laguntza osagarri batzuetatik lortu denak, ez du proiektuaren behin betiko guztizko zenbatekoa gaintutuko.

Eman zaion laguntzaren zenbatekoa eskatzaileak Kutxabanken titular duen kontu batean sartuta ordainduko da, epe bitan: %75 gehienez, laguntza ematen denean lankidetzat hitzarmena sinatzean, eta gainerakoa, proiektuaren amaierako exekuzio-memoria aurkeztu eta onartu ostean. Amaierako memoria hori, edozein kasutan ere, 2019ko urtarrilaren 31 baino lehen entregatu beharko da.

5. Proiektuen aurkezpena, epeak eta ebazpena: Proposamenak ahalik eta zehatztasun handienaz idatzi behar dira. Deialdi honi atxiki zaion eskaera-inprimakia bete behar da, eta proiektuaren deskripzioa eta kronograma erantsiko zaizkio, baita gastuen eta diru sarreraren aurrekontua ere, eta web orri honen bitartez igoerriko da.

Laguntza-eskaerak aurkezteko epea 2018ko maiatzaren 2an hasiko da, eta 2018ko maiatzaren 21a izango da aurkezteko azken eguna.

VITAL Fundazioaren Patronatuak proiektuak eta eman beharreko laguntzak ebaluatuko ditu eta horiei buruzko ebazpena aterako du 2018ko ekainaren amaiera aldera. Erakunde eskatzaile bakoitzari jakinaraziko zaio zuzenean ebazpen

Laguntzen deialdia eta laguntza horiek arautzen dituzten oinarriak Fundación Vital Fundazioaren Patronatuak erabaki zituen 2017ko abenduaren 14ko bileran

